# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzak 2**

**Vitoria-Gasteiz, 2 de mayo de 2018**

**Lehendakaritza**

**EUSKO JAURLARITZAK *LAGUN ONARI* BEREIZGARRIA EMAN DIO EUROBASQUE – EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUARI**

- **Euskadiko balio demokratikoak, historia, ekonomia eta kultura Europan hedatzeko egindako lana aitortzeko**
- **Lehendakariak maiatzaren 9an, asteazkenean, emango dio bereizgarria Lehendakaritzan**

Eusko Jaurlaritzak gaur erabaki du *Lagun Onari* bereizgarria **EuroBasque** – Consejo Vasco del Movimiento Europeo / Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari, ematea, Euskadiko balio demokratikoak, historia, ekonomia eta kultura Europan hedatzeko egindako lanagatik, Exekutiboaren esanetan Euskadirentzat erabat onuragarria izan baita.

Bereizgarria Iñigo Urkullu lehendakariak berak emango dio maiatzaren 9an, asteazkenean, Lehendakaritzan egingo den ekitaldi batean.

EuroBasque orain dela 70 urte sortu zen, eta Nazioarteko Europar Mugimenduaren Euskadiko atala da. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek gaur egun 110 kidetik gora ditu, eta kide horien artean erakundeak eta gizarte zibileko gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloko erakunde eta elkarteen, hau da, udalen, unibertsitateen, kultura-elkarteen eta sindikatuen ordezkariak eta Europako politikari eta adituak daude.

Kontseiluaren helburu nagusiak dira Euskadiren eta beste herri, eskualde eta nazio batzuen arteko harremanak sustatzea, gizarteari Europa batua eta aniztasuna errespetatzen duena behar dela ikusaraztea, Europar Batasuna eraikitzeko politika eta dinamizazio soziala eta ideal demokratikoa mantentzea; eta herritarrek Europako erakundeetan eta hauteskundeetan parte har dezaten sustatzea.

***Lagun Onari* goraipamena**

*Lagun Onari* tituluak esker ona eman nahi die Euskal Herrikoak izan ez arren, beren ekintzekin Euskadiren alde egin duten pertsonei eta entitateei, euskal ekonomia sustatzen eta euskal historia eta kultura kanpoan ezagutarazten egindako lanagatik. Halaber, historian Euskal Herriak oso estimatuak izan dituen bertuteak eta baloreak agertzeagatik euskal herritarren lagunak direla aitortu nahi zaien pertsona fisiko nahiz juridikoei eman ahal izango zaie «Lagun Onari» goraipamena, euren eremua gizartea, kultura, ekonomia edo politika dela.

Hona hemen *Lagun Onari* goraipamena jaso dutenen zerrenda: Frantziako Errepublika; José Ignacio Sánchez Galán, enpresa-zuzendaria; Nevada estatua; Mexikoko Estatu Batuak; Argentinako Errepublika; Idahoko estatua; Vaclav Havel, Txekiar Errepublikako presidentea; Francesco Cossiga, Italiako Errepublikako eta Senatuko presidentea; William A. Douglass, Nevadako Unibertistateko irakaslea, Basque Studies Program-eko katedraduna, antropologoa, historialaria eta ohorezko euskaltzaina; Eduardo Frei, Txileko Errepublikako presidentea; Julio María Sanguinetti, Uruguaiko Errepublikako zentzaren ikertzapresidentea; eta Selma Huxley Barkham, Ternua eta Labradorren euskal presentziaren ikertzailea.

**Lehendakaritza**

## ONARTU DA GAZTEMUNDU 2018 PROGRAMAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA, EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAK IRAKASTEN IKASTEKO

Gobernu Kontseiluak Gaztemundu programaren aurtengo deialdia onartu du, Euskal Etxeetako gazteek egonaldi bat egin dezaten Euskadin.

Programa horretarako 51.600 euro bideratu dira, atzerriko Euskal Etxeetako 18 eta 35 urte bitarteko 15 gaztek, gehienez, egonaldi bat egin dezaten Euskadin 2018ko irailaren 1etik 16ra.

Aurten, Gaztemundu programako partaideen prestakuntza euskal dantza tradizionalak irakasteari buruzkoa izango da. Hala, adituek gidatutako prestakuntza-programan parte hartuko dute aurten hautatutakoek.

Egonaldian, bestalde, beste jarduera batzuk izango dituzte, euskal jatorria duten gazteek aukera izan dezaten harremana izateko erakundeekin, elkarteekin eta Euskadin bizi eta lan egiten duten pertsonekin, baita Euskadiko eta kanpoko gazteen arteko harremanak sortzeko ere.

Aurtengo programan parte hartzeko interesa dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, deialdia EHAAn argitaratu ondoren.

Gaztemundu programa Basque Country Estrategiaren baitakoa da –estrategia horren helburuetako bat da Euskadi kanpoan proiektatzea– eta 1996an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiren egungo errealitatearen alde guztiak ezagutarazteko eta belaunaldi berriei Euskal Etxeetako bizitza aktiboan integratzeko aukera emateko.

Ordutik hona, 800 bat lagunek hartu dute parte programa horretan (gehienak Argentinakoak) eta horietako asko orain Euskal Etxeetako zuzendaritzetako kideak dira edota ardura postuak betetzen dituzte.

**Enplegua eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK 14 MILIOI EURO BIDERATU DITU GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA HORNITZERA; AURTEN, 20 MILIOI EURO IZANGO DITU

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gaur onetsi du 14.008.000 euro bideratzea Gizarte Zerbitzuen Funtsera, Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan programatuta. Gobernuak funts honi Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko oinarrizkoak diren proiektuak sustatzeko egiten dion ekarpena da.

Hori da Eusko Jaurlaritzak Funtsari egin behar dion ekarpena, Gizarte Zerbitzuen garapenerako; 2018an 20 milioi euro izango ditu. Funts horri eginiko finantza-ekarpenak Eusko Jaurlaritzari dagozkio batetik, eta, bestetik, foru-aldundiei, koefiziente bertikalarekin proportzioan (% 70,04 eta % 29,96) eta horizontalarekin proportzioan (Araba 16,44%, Bizkaia 50,37% eta Gipuzkoa 33,19%).

Lurralde historikoen arteko funtsaren banaketa egiteko, koefiziente horizontalak hartuko dira oinarritzat. Gero, foru-aldundi bakoitzak zenbatekoak bere lurralde historikoko udalen artean banatuko ditu, Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoak onetsitako banaketa-irizpideen arabera; organo horretan daude, besteak beste, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea. Organo hori izango da finantzatutako proiektuen jarraipena egiteko eta, sei hilerik behin, horien txosten xehatua Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari bidaltzeko arduraduna.

2018an, Eusko Jaurlaritzak emandako 14 milioi eurotik gorako kopurua honela banatuko da: Arabako Foru Aldundiak 2.302.915 euro jasoko ditu; Gipuzkoako Foru Aldundiak, 4.649.255 euro; eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 7.055.830 euro.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedapen iragankorrak xedatzen du egindako eskumen-banaketaren ondorioz dagokion finantza-doikuntza egingo dela euskal administrazio publikoen artean, finantza-nahikotasuna bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko autonomia-erkidegoaren mailan, foralean eta udal-mailan. Legeak gainera dio eskumenen birbanaketa horrek eta finantza-doikuntza horrek inolaz ere ezingo dutela ekarri murrizketarik indarrean sartzen den egunean dauden prestazio eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailetan.

2017ko urriaren 11an, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak erabaki zuen Aparteko Funtsa eratzea, 20.000.000 eurokoa, Euskal Autonomia Erkidegoko foru- edo udal-erakundeek egiten dituzten Zorroari buruzko Dekretuko prestazioak eta gizarte-zerbitzuak –berriak edo oso gutxi garatuta– hornitzeko beharrezkoak diren jarduketak finantzatzeko.

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza**

## LEKEITION PARTZELA BAT 48 ZUZKIDURA BIZITOKI EGITEKO EGOKITZEA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, etxebizitzaren arloko eskumenak baliatuz, lurzorua behar du beharrizan egiaztatua duten udalerrietan etxebizitza babestuak eraikitzeko.

Hori dela eta, Gobernu Kontseiluak onartu du Lekeitioko Udalak bere udal-mugarteko partzela bat doan lagatzea, eta baimena eman du hitzarmena sinatzeko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Lekeitioko Udalaren artean, partzela horretan 48 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko.

Zuzkidura-bizitoki horiek, beren ezaugarriak direla eta, lehentasunez gazteen etxebizitza-beharrei erantzuteko pentsatuta daude; izan ere, aldi baterako bizitokiak dira eta okupatzaileak ezingo dira bertan bost urte baino gehiago egon.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, gaur egun, guztira 846 zuzkidura-bizitokiren sustapena du martxan, autonomia-erkidegoko 12 udalerritan.

**Hezkuntza**

## 8,5 MILIOI EURO IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZARAKO, DOKTORATU AURREKO KONTRATUEN BIDEZ

- **2018-2019 ikasturterako deialdiak diru-laguntza lerro berria ireki du, neutronikan eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko**
- **405 euskal ikertzailek dute doktoratu aurreko kontratu bat 2017-2018 ikasturtean, deialdi honen bidez**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2018-2019 ikasturtean doktore ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako Doktoratu aurreko Programan beka berriak deitu eta lehendik zeudenak berritzen dituen agindua.

8.520.058 euroko diru-kopuru globala duen deialdi honek, ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, Doktore titulua lortu ahal izan dezaten, eta kalitatezko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratu ditzaten, Doktoretza Programa baten barruan. Deialdiak bere barne hartzen du bai beka berriak ematea, eta baita aurreragoko deialdietan emanikoak berritzea ere. Zehazki, kopuru horretatik 1.902.394 euro laguntza berriak emateko bideratuko dira, eta gainerako 6.617.664 euroak lehendik indarrean zeudenak berritzeko.

| Lerroak: | Guztira |
|---|---|
| Laguntza berriak (ikerketa orokorrean) | 1.854.076 € |
| Laguntza-berritzeak | 6.617.664 € |
| Laguntza berriak (berariazko ikerketan) | 48.318 € |
| **Guztira** | **8.520.058 €** |

**Doktoratu aurreko kontratuak**

Laguntza hauen onuradun izango dira, unibertsitate lizentziatura edo gradu bat izanik tesi-proiektua egingo duten pertsona fisikoak, betiere egoitza EAEn dutenak. Laguntza horiek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte, urtebeteko iraupenarekin. Kontratu hori bere ikerketa garatuko duen aplikazio-zentroarekin izenpetuko du ikertzaileak. Kontratuaren xedea izango da proiektu zehatz eta berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko erregimenean. Kontratua beste hiru alditan ere luzatu ahal izango da (gehienez 48 hilabete elkarren segidakoak), laguntza berrituz gero.

Laguntza hauek jasotzeko aplikazio-zentroak, eta beraz, ikertzaileekin kontratuak sinatuko dituztenak, unibertsitate edo ikerketa erakundeak izango

dira, publiko zein pribatuak, I+G-an ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak. Zentro hauek izan dezakete egoitza EAEn (A modalitatea), Estatuan (B modalitatea), edo atzerrian (I modalitatea). Hirugarren modalitate honen kasuan, ikertzaile onuradunak Zientziaren Euskal Fundazioarekin, Ikerbasquerekin, sinatuko du kontratua. Kontratu horretan osagarri bat ere ezartzen da atzerriko zentrora joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean.

**Neutronika eta partikulen azelerazioa**

Datorren 2018-2019 ikasturterako deialdi honek berritasun bat dakar. Izan ere, berariazko diru-laguntza lerro berri bat ireki da, neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko. Ikerketa arlo hau interes berezikoa da egun Europako Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko ere abagunea eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko.

Bestalde, ikerketa orokorrari dagokion ohiko lerroan, ezagutza arlo hauetako ikerlanek dute lekua: Oinarrizko Zientziak; Bizitza eta Osasun Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologiak eta Arkitektura; Gizarte Zientziak eta Humanitateak.

**405 ikertzaile onuradun**

2017-2018 ikasturte honetan, 405 euskal ikertzaile dira doktoratu aurreko laguntza hauen onuradun, iazko deialdiari esker: 100 ikertzaile, onuradun berriak dira, eta gainerako 305 ikertzaileek laguntza berritu egin dute.

Doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzen da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planean (2015-2018koan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean; ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berariazko prestakuntza bultzatzea. Halaber, zientzia eta teknologia gaietan lekukoa hartuko duen belaunaldi berriaren prestakuntza sustatzea ere bada programaren xedea.

**Osasuna**

## GOBERNU KONTSEILUAK BORONDATE AURRERATUEN EUSKAL ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ALDATU DU, EPEAK ARINDU ETA ESKAERA GEHIAGORI ERANTZUN AHAL IZATEKO

Dokumentu hau errazago egiteko, osasun-zentroetan famili medikuaren aholkularitzarekin idatzi ahal izateko aukera zabaltzen ari da Osakidetzan

Euskadi buru da erregistratutako borondate aurreratuen dokumentuen kopuruan; mila biztanle bakoitzeko 9,9 emaile dago, eta espero da, aldaketa horren bidez, kontsulta-kopura epe laburrera areagotzea eta % 33koa izatea

Gobernu Kontseiluak, gaur, **Borondate Aurreratuen Euskal Erregistroaren** azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren aldaketa onetsi du. Aldaketa horrek, batik bat, borondate aurreratuen dokumentua ematea formalizatzeko eskubidea baliatzeko **hurrengo urteotan Euskadin espero den gero eta eskari-kopuru handiagora egokitzeko betebeharrari erantzuten dio.**

**Jon Darpón Osasun sailburuak** Gobernu Kontseiluaren ondoko prentsaurrekoan zehaztu duen bezala, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du **formula hori sustatzen jarraitzeko**, **euskal herritarren artean izaten ari den onarpen ona kontuan hartuta.** Gero eta pertsona gehiagok nahi dute nola hil nahi dugun jaso duten jarraibide batzuen erregistro ofiziala egin, pertsona hiltzeko unean bere borondatea adierazteko ezintasuna duen kasuan; erregistro hori osasun-profesionalentzako eta beren hurbilekoenentzako gida izan dadin nahi da.

Gaur gogorarazi den bezala, borondate aurreratuen dokumentuan funtsezko printzipioak eta osasun-eremuan hartu beharreko erabakiak orientatuko dituzten irizpideak adierazi daitezke, besteak beste: **bizitzaren amaieran zaintzak non jaso nahi diren edo organoen emaile izateko borondatea; tratamendu eta zaintza batzuen onarpena edo ukapena zer osasun-egoeratan nahi den kontuan hartzea; edo ordezkari bat esleitzea, baliozko bitartekari izan dadin, osasun-taldearen aurrean, pazienteak bere borondatea adierazi ezin duen kasuan.**

**DOKUMENTUA EMAN AHAL IZATEKO FORMULAK**

Gaur onetsi den dekretu berriak Borondate Aurreratuen 7/2002 Legean aurreikusitako hiru formuletara zabaltzen du, borondate aurreratuen dokumentua eman ahal izateko: **erregistroaren arduradunaren bidez, hiru lurralde-ordezkaritzetako bulegoetan, notario bidez eta osasun zentruetan hiru lekukoen sinaduraren bidez.**

Gaur onetsi den aldaketari esker, esleipen **hori baliatzeko deszentralizazioa** ezarri da, **zeregin hori beteko duten** eta organo zentralaren mendekotasun funtzionalean diharduten **arduradun batzuen bidez**, Osasun Sailak hiru lurraldeetan dituen bulegoetan. Jon Darpón sailburuaren iritziz, **aldaketa horren bidez, "zerbitzua borondate aurreratua bete nahi duten interesdunen zerbitzura hurbilduko da"**, eta, aldi berean, **administrazio-baliabideak gero eta handiagoa den eskariaren eboluziora arin egokituko dira.** Dekretu honen onespenaren epe laburrean aurreikusten da **xede horretarako kontsultak areagotzea eta % 33 izatea.**

**OSASUN ZENTROEN EGINKIZUNA**

Borondate aurreratuen dokumentua errazago egiteko, Osasun sailburuak gaur iragarri du, halaber, dokumentua **osasun-zentroan bertan medikuaren aholkularitzarekin** idatzi ahal izateko aukera zabaltzen ari dela Osakidetzan, hiru lekukoen formularen bidez, halakotzat osasun-zentroko beste profesional batzuk jardungo dutela. Jon Darpónek azaldu duenaren arabera, ekimen hau **Arabako Lurraldean** jarri zen lehendabizi martxan, eta osasun-zentro guztietara zabaldu zen; emaitzak onak izan direnez, iaztik **Bizkaiko eta Gipuzkoako** osasun-zentroetara zabaltzen ari da.

Borondate aurreratuak errazago emateko dinamika horrek, gainera, beste abantaila bat du, adin askoko pazienteei eta patologia kronikoak dituztenei beren medikuek zuzendu eta eskaini ahalko dizkiete; bertan, adinak eta gaixotasunak aurrera egin ahala beharko diren zaintza eta terapien komunikazio eta plangintza partekatuaren prozesuak zentzu guztia du, pertsonei aukera ematen baitzaie protagonista izateko eta beren bizi-amaierako prozesua iristen denerako zer lehentasun duten adierazteko.

Gainera, eguneratze horren bidez aldatu egiten da, halaber, dokumentuetara jotzeko araubidea; horrela, horietara jotzeko eskubidea –**orain arte osasun-langileei eta emaileei beraiei baino ez zitzaien ematen– beraiek izendatutako ordezkariei ere zabalduko zaie.**

**EUSKADI BURU ERREGISTRO KOPURUARI DAGOKIONEZ**

Euskadin 21.723 borondate aurreratuko dokumentu erregistratu dira, alegia, **1.000 biztanleko 9,9 emaile**; Estatuan zifrarik altuena duen autonomia-erkidegoa.

Dokumentuak deszentralizatu eta arintzean eta osasun-zentroetan beretan egiteko aukerak ematen dituen erraztasunen bidez, horiek areagotzea espero da. Praktika hori sustatzeak asistentziaren kalitatea eta pazienteen ahalduntzea hobetzea, profesionalen segurtasun etikoa eta profesionala areagotzea eta, aldi berean, bizitzaren amaieran pertsonen autonomia eta lehentasunak errespetatzea dakar.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 670.000 ZUZENDUKO DITU EUSKAL IIBURUTEGIEI FUNTSAK EROSTEN LAGUNTZEKO

- **Laguntza horren zati bat liburutegi sortu berriek lote fundazionalak erosteko izango da.**

Gobernu Kontseiluak 670.000 euroko partida onartu du bere gaurko bileran, 2018an Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegiei funtsak erosten laguntzeko. Laguntza horiek liburutegi sortu berriek lote fundazional berriak erosteko izan daitezke edo gainontzeko liburutegiek titulu gehiago eros ditzaten.

Euskadiko Liburutegien 11/2007 Legeak, urriaren 26koak, ezarritakoa betetzea da diru-laguntza hauen helburua, eta diru-kopurua joan den urtean emandako bera izango da. Araudi horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak funtsen zuzkidurarako laguntza-programak ezarri behar ditu urtero bere aurrekontuetan, Sailaren eskumena baita Liburutegien Zerbitzua kudeatzea, eta baita Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagozkion funtzioak garatu eta haieik ekitea ere.

Diru-laguntza horiek bi modalitate jasotzen dituzte:
- Liburutegi sortu berriek lote fundazionalak erosteko diru-laguntzak. Laguntza-mota horretarako 50.000 euro zuzenduko dira.
- Orain dauden liburutegietako funtsak berritzeko diru-laguntzak. Partida honetan 620.000 eurokoa izango da diru-zuzkidura.

Diru-laguntza lerro horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegien titularrekin batera, liburutegi horiek funtsez hornitzeko erantzukizuna, erabiltzaileen premiei behar bezala erantzun ahal izateko.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak sei milioi ale baino gehiago ditu funtsetan, ia 1.100.000 titulu desberdin eta 980.000 bazkide inguru. Beste abantaila batzuen artean, Sareko bazkideek sarbidea dute eLiburutegira, Estatuko liburutegi digital handienera, alegia.

Joan den urtean hiru eskaera aurkeztu ziren liburutegi sortu berrietarako liburuak erosteko, eta bi onartu ziren. Orain dauden liburutegietako funtsak berritzeko, 180 eskaera aurkeztu ziren eta guztiak onartu ziren. Diru-laguntza hauen bitartez berritu egin dira haien katalogo bibliografikoak. Hala, 2017an 261.703 ale berri gehitu ziren Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EURO ZUZENDU DITU MUSEO, ERAKUSKETA ETA BILDUMA PRIBATUETAKO JARDUERAK BABESTERA

- **Laguntza horien bitartez erakusketa iraunkorren eguneratzea, aldi baterako erakusketak edota jarduera didaktikoak diruz babestuko dira.**

Gobernu Kontseiluak 700.000 euroko partida onartu du bere gaurko bileran, museoetako eta bilduma pribatuetako lana diruz laguntzeko. Aurrekontu horren bitartez, erakusketen eguneratzeak babestuko dira, baita aldi baterako erakusketak, ondareari buruzko ikerlanak, jarduera didaktikoen eguneratzeak edo webguneak hobetzeko lanak ere, besteren artean.

Euskadiko museoetako jarduera joritzea eta bultzatzea da laguntza horien helburua, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak Euskadiko Museoen Zentroa babesteko dituen bide nagusietako bat dira, kontuan izanik zentroak gure erkidegoko museoen multzoa hartzen duela barnean. Hauek dira diru-laguntzak jaso ditzaketen jarduerak:

- Bilduma dokumentatzea, orokorrean, EMSIME informazio-sistema erabiliz.
- Erakusketa iraunkorra eguneratzea.
- Aldi baterako erakusketak.
- Jarduera didaktikoak eta ludiko/kulturak, museoaren tematikarekin eta jardute-eremuarekin bat datozenak.
- Euren bildumak osatzen duten ondareari buruzko ikerlanak, erakusketetan, jarduera didaktikoetan eta kultur hedapeneko jardueretan txerta ditzaten emaitzak.
- Bildumei buruzko eduki zientifikoen eta dibulgaziozkoen edizioa eta itzulpena, katalogo, monografia, aldizkako argitalpen, ikus-entzunezko edo multimedia moduan, gutxienez formatu digitalean argitaratu ahal izateko.
- Dokumentuak eta azterlanak lantzea kudeaketa hobetu eta berritzeko: plan estrategikoak, gida-planak, zerbitzu-kartak, bideragarritasunari buruzko azterlanak, publikoari buruzko azterlanak, komunikazio-planak eta marketin kulturala, diagnostikoak eta neurrien plangintza emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde barne-kudeaketan eta jardueren programazioan.
- Sorkuntza eta hobekuntza teknikoak museoaren web orrian.

Joan den urtean 39 diru-laguntza eman ziren proiektu edo ekimenetarako, guztira 23 museok, udalek, kultur etxek eta elkartek sustatutakoetara. Laguntzarik handiena, 33.742 euro, Donostiako Aquariumarentzat izan zen, bildumen katalogazio-lanak babesteko eta online katalogoan argitara ditzaten.

**Presidencia**

## EL GOBIERNO VASCO CONCEDE SU DISTINTICIÓN *LAGUN ONARI* AL CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO-*EUROBASQUE*

- **En reconocimiento a su labor en la divulgación de los valores democráticos, de la historia, de la economía y de la cultura vasca en Europa**
- **El Lehendakari entregará la distinción el miércoles, 9 de mayo, en Lehendakaritza**

El Gobierno Vasco ha acordado hoy conceder su distinción *Lagun Onari* a Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua/Consejo Vasco del Movimiento Europeo-**EuroBasque**, por su labor en la divulgación de los valores democráticos, de la historia, de la economía y de la cultura vasca en Europa, lo que –a juicio del Ejecutivo- ha contribuido significativamente al beneficio de Euskadi.

La distinción será entregada por el Lehendakari Iñigo Urkullu en un acto que se celebrará el miércoles, 9 de mayo, en Lehendakaritza.

EuroBasque fue creada hace ahora 70 años y constituye la sección vasca del Movimiento Europeo Internacional. En la actualidad esta asociación sin ánimo de lucro cuenta con más de 110 miembros que representan a instituciones o personalidades relevantes de la sociedad civil, socio-económica y política, esto es: ayuntamientos, universidades, asociaciones culturales, sindicatos, personas expertas y políticos europeos.

Entre sus objetivos destacan el de potenciar las relaciones de Euskadi con otros pueblos, regiones y nacionalidades; difundir en la sociedad la necesidad de una Europa unida y respetuosa con su diversidad; mantener los ideales democráticos y la dinamización social y política de la construcción de la Unión Europea; y potenciar la participación de los ciudadanos en las elecciones e instituciones europeas.

### La distinción *Lagun Onari*

El título Lagun Onari reconoce a las personas físicas o entidades que, aun no teniendo la condición política de vascos, hayan contribuido significadamente al beneficio de Euskadi, a su promoción económica y a la divulgación histórica y cultural de lo vasco en el exterior, en el desempeño de sus actividades. Asimismo, puede concederse a aquellas personas físicas o jurídicas de reconocido prestigio en el ámbito social, cultural, económico o político, a los que se quiere reconocer como amigos de los vascos, por reflejar en su trayectoria virtudes y valores muy estimados por el Pueblo Vasco a lo largo de la historia.

Hasta el momento, la distinción se ha concedido en anteriores ediciones a la República Francesa; José Ignacio Sánchez Galán directivo empresarial, Estado de Nevada; Estados Unidos Mexicanos; República Argentina; Estado de Idaho; Vaclav Havel, Presidente de la República Checa; Francesco Cossiga, Presidente de la República Italiana; William A. Douglas, antropólogo e historiador, profesor de la Universidad de Nevada y catedrático del Basque Studies Program; Eduardo Frei, Presidente de la República de Chile; Julio Mª Sanguinetti, Presidente de la República de Uruguay; y a Selma Huxley Barkham, historiadora e investigadora de la presencia vasca en Terranova y Labrador.

**Presidencia**

## APROBADA LA CONVOCATORIA PARA PARTICIPAR EN EL PROGRAMA GAZTEMUNDU 2018, QUE ESTARÁ DEDICADO A LA ENSEÑANZA DE DANZAS TRADICIONALES VASCAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para este año del programa Gaztemundu, destinado a los jóvenes de las Euskal Etxeak que deseen realizar una estancia en Euskadi.

De este programa, al cual se han destinado 51.600 euros, podrán beneficiarse hasta un máximo de 15 personas de entre 18 y 35 años de los centros vascos del exterior que realizarán una estancia en Euskadi entre el 1 y el 16 del próximo mes de septiembre.

Este año, la capacitación de las personas que van a participar en Gaztemundu girará en torno a la enseñanza de danzas tradicionales vascas, para lo cual participarán en un programa de capacitación preparado por expertos.

La estancia incluye, además, actividades a través de las cuales jóvenes de origen vasco tienen la oportunidad de mantener contactos con instituciones, organizaciones y personas que trabajan y viven en Euskadi, así como contactos entre jóvenes de dentro y fuera de Euskadi.

Los interesados en participar en el programa de este año podrán presentar sus solicitudes en la Secretaria General de Acción Exterior de Lehendakaritza, una vez se publique la convocatoria en el BOPV.

El programa Gaztemundu se engloba dentro de la Estrategia Basque Country que busca entre otros objetivos las proyección de Euskadi en el exterior y fue creado en 1996 por el Gobierno Vasco, con el doble fin de dar a conocer la realidad actual de Euskadi en todas sus vertientes y permitir la integración de las nuevas generaciones en la vida activa de sus centros vascos.

Desde entonces, han participado en este programa cerca de 800 personas jóvenes (la mayoría procedentes de Argentina) muchas de las cuales conforman las actuales directivas de las Euskal Etxeak o bien ocupan puestos de responsabilidad.

## Empleo y Políticas Sociales

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA DOTAR CON 14 MILLONES EL FONDO DE SERVICIOS SOCIALES DERIVADO DEL DECRETO DE CARTERA DE PRESTACIONES Y SERVICIOS

A propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco,el Consejo de Gobierno ha aprobado dotar con 14.008.000 euros el Fondo de Servicios Sociales derivado del Decreto 185/2015, de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

En 2018 el importe del Fondo ascenderá de nuevo los 20 millones de euros. Las contribuciones financieras a dicho fondo corresponden al Gobierno Vasco y a las Diputaciones Forales en proporción a su coeficiente vertical (70,04% y 29,96%) y horizontales respectivos (Araba 16,44%, Bizkaia 50,37% y Gipuzkoa 33,19%).

La distribución del fondo entre los Territorios Históricos se efectuará en base a los coeficientes horizontales. Posteriormente, cada Diputación foral distribuirá los importes entre los Ayuntamientos de su Territorio Histórico en función de los criterios de reparto aprobados por el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, del que forman parte el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL. Este órgano será el encargado de realizar el seguimiento de los proyectos financiados y elevar semestralmente un informe detallado de los mismos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En 2018, los más de 14 millones de euros aportados por el Gobierno Vasco se distribuirán de la siguiente manera: la Diputación Foral de Álava/Araba recibirá 2.302.915 euros; la Diputación Foral de Gipuzkoa 4.649.255 euros; y la Diputación Foral de Bizkaia 7.055.830 euros.

La disposición transitoria tercera de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales dispone que como consecuencia de la distribución competencial efectuada se realizará el correspondiente reajuste financiero entre las administraciones públicas vascas, con el fin de garantizar la suficiencia financiera para la provisión del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales en los niveles autonómico, foral y municipal. La Ley añade que dicha redistribución competencial y dicho reajuste financiero en ningún caso podrán suponer una disminución en los niveles de intensidad y cobertura de las prestaciones y servicios existentes en la fecha de su entrada en vigor.

El 11 de octubre de 2017 el Consejo Vasco del Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó constituir un Fondo Extraordinario dotado con 20.000.000 euros, destinado a la financiación de las actuaciones necesarias para la provisión de las prestaciones y servicios sociales, nuevos o escasamente desarrollados, del Decreto de Cartera, que realicen las entidades forales y municipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda**

## ACEPTACIÓN DE UNA PARCELA EN LEKEITIO PARA LA EDIFICACIÓN DE 48 ALOJAMIENTOS DOTACIONALES

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda en el ejercicio de sus competencias en materia de vivienda, precisa de suelo para la construcción de viviendas protegidas en municipios en los que existe una necesidad acreditada.

Por ello, el Consejo de Gobierno ha aceptado la cesión gratuita por parte del Ayuntamiento de Lekeitio de una parcela en su término municipal y ha autorizado la suscripción de un convenio entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y el Ayuntamiento de Lekeitio para la construcción de 48 alojamientos dotacionales en dicha parcela.

Por sus características, los alojamientos dotacionales están pensados para atender preferentemente las necesidades de viviendas de las personas jóvenes, ya que se trata de un alojamiento temporal en el que sus ocupantes no pueden permanecer más de cinco años.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda tiene actualmente en marcha la promoción de un total de 846 alojamientos dotacionales (ADAS) en 12 localidades de la Comunidad Autónoma.

## Educación

**8,5 MILLONES DE EUROS PARA LA FORMACIÓN Y PERFECCIONAMIENTO DE PERSONAL INVESTIGADOR, MEDIANTE CONTRATOS PREDOCTORALES**

- **La convocatoria para el curso 2018-2019 incluye una nueva línea específica de ayudas para la potenciación de la investigación en neutrónica y aceleración de partículas**
- **Durante este curso 2017-2018, 405 investigadores e investigadoras vascas cuentan con un contrato predoctoral, mediante esta convocatoria**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la orden por la que se regulan y convocan las becas nuevas y las renovaciones para el Programa Predoctoral, de formación de personal investigador no doctor correspondiente al curso 2018-2019.

Con un importe global de 8.520.058 euros, esta convocatoria pretende promover la formación de los investigadores e investigadoras para la obtención del título de Doctor o Doctora y la adquisición de las competencias y habilidades relacionadas con la investigación científica de calidad, dentro de un Programa de Doctorado. La convocatoria incluye tanto la concesión de nuevas becas como la renovación de las concedidas en convocatorias anteriores. En concreto, 1.902.394 euros de ese importe global se destinarán a la concesión de nuevas becas, y 6.617.664 euros a renovaciones.

| Líneas: | Total |
|---|---|
| Ayudas nuevas (investigación general) | 1.854.076 € |
| Renovaciones (investigación general) | 6.617.664 € |
| Ayudas nuevas (investigación específica) | 48.318 € |
| **Total** | **8.520.058 €** |

**Contrato predoctoral**

Serán beneficiarias de estas ayudas las personas físicas solicitantes que, en posesión de licenciatura o grado universitario, y con residencia en Euskadi, realizarán el proyecto de tesis doctoral. Las ayudas concedidas tendrán las características de un contrato predoctoral, de un año de duración, que se formalizará con el centro de aplicación en el que el beneficiario desarrolle su investigación predoctoral. Este contrato tendrá por objeto la realización de tareas de investigación en el ámbito de un proyecto específico y novedoso en

régimen de dedicación a tiempo completo. El contrato podrá ser prorrogable hasta por otros tres periodos anuales completos (máximo 48 meses consecutivos), previa renovación de la ayuda.
Los centros de aplicación para estas ayudas y que, por tanto, formalizarán los contratos con el personal investigador, serán universidades u organismos, públicos o privados, con capacidad y actividad demostrada en I+D, con sede social en Euskadi (modalidad A), en el resto del Estado (modalidad B), o en el extranjero (modalidad I). En esta tercera modalidad, el beneficiario celebrará el contrato predoctoral con la Fundación Vasca para la Ciencia, Ikerbasque, e incluirá un suplemento para la financiación de un viaje de ida y vuelta anual.

**Neutrónica y aceleración de partículas**
Esta convocatoria para el próximo curso 2018-2019 incluye, como novedad, una nueva línea específica de ayudas para la potenciación de la investigación en neutrónica y aceleración de partículas, área que en la actualidad es de especial interés en el contexto de la Unión Europea y particularmente para Euskadi. Esta área constituye un ámbito de valor estratégico para el futuro científico, tecnológico e industrial para la CAPV, además de representar una oportunidad para el futuro desarrollo de la I+D+i vasca. El refuerzo y la ampliación de la comunidad científica en esta área en Euskadi constituye un objetivo prioritario para apuntalar los objetivos científicos que se ha marcado la Comisión Europea en relación a la operación de la fuente de espalación de neutrones europea ESS Lund.
Por su parte, la habitual línea de investigación general abarca investigaciones a desarrollar en las siguientes áreas de conocimiento: Ciencias Básicas; Ciencias de la Vida y de la Salud; Ingenierías, Tecnologías y Arquitectura; y Ciencias Sociales y Humanidades.

**405 personas beneficiarias**
Durante este curso 2017-2018, 405 investigadoras e investigadores vascos son beneficiarios de estos contratos predoctorales: 100 fueron a modo de nuevas ayudas, y 305 renovaciones de contrato.
El Programa Predoctoral se integra en la política de potenciación de los recursos humanos dedicados a la investigación en el marco del Plan Universitario 2015–2018 y del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020 del Gobierno Vasco. Tiene como propósito promover la formación específica de las personas tituladas superiores que deseen orientar su actividad profesional hacia la investigación. Asimismo, promueve la formación de una nueva generación de relevo en materia de ciencia y tecnología.

**Salud**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO MODIFICA EL DECRETO QUE REGULA EL REGISTRO VASCO DE VOLUNTADES ANTICIPADAS PARA AGILIZAR LOS PLAZOS Y PODER ATENDER MÁS SOLICITUDES

Con el objetivo de facilitar la realización de este documento, se está extendiendo en Osakidetza la posibilidad de que las personas puedan redactarlo en los Centros de salud con la asesoría de su médico de familia

Euskadi se sitúa a la cabeza en el número de documentos de voluntades anticipadas registrados, con una tasa de 9,9 por cada 1.000 habitantes, y se espera que con esta modificación el número de personas que otorga este documento aumente un 33%

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la modificación del Decreto 270/2003, de 4 de noviembre, por el que se crea y regula el **Registro Vasco de Voluntades Anticipadas**. Dicha modificación responde sobre todo a la necesidad de adaptarse al **considerable incremento de la demanda** del ejercicio del derecho a formalizar el otorgamiento del documento de voluntades anticipadas **que se espera en los próximos años en Euskadi.**

Tal y como ha detallado el **consejero de Salud, Jon Darpón**, en la rueda de prensa posterior al Consejo de Gobierno, el Gobierno Vasco se compromete a **seguir potenciando esta fórmula dada la buena aceptación que está teniendo entre los ciudadanos y ciudadanas vascas**. De hecho, cada vez son más las personas que desean registrar de forma oficial una serie de instrucciones que sirvan de guía a los profesionales sanitarios y también a sus más allegados sobre qué cuidados desea recibir y cómo en caso de que la persona no pueda expresar su voluntad en ese momento.

Tal y como se ha recordado hoy, en el documento de voluntades anticipadas se pueden expresar principios vitales y criterios que deben orientar las decisiones a tomar en el ámbito sanitario, como **la elección del lugar donde se quiere recibir los cuidados al final de la vida o la voluntad de ser donantes de órganos; las situaciones sanitarias concretas en las que se quiere que se tengan en cuenta la aceptación o rechazo de determinados tratamientos y cuidados; o la designación de un representantes para que actúe como interlocutor válido ante el equipo sanitario en el caso de que el paciente no pueda expresar su voluntad.**

### FÓRMULAS PARA PODER OTORGAR EL DOCUMENTO

El nuevo Decreto aprobado hoy amplía las fórmulas contempladas en la Ley 7/2002 de las Voluntades Anticipadas para poder otorgar un documento de Voluntades Anticipadas: **estableciendo encargados de registro en las tres Delegaciones Territoriales de Salud, mediante notario y mediante la firma de tres testigos que pueden ejecutar en los centros de salud.**

Gracias a la modificación hoy aprobada, se establece la **descentralización del ejercicio** de esa atribución **a través de varios responsables que desarrollen esa tarea** en las tres Delegaciones territoriales del Departamento de Salud y que actúen bajo la dependencia funcional de un órgano central. A juicio del Consejero Jon Darpón, **esta modificación permitirá "acercar el servicio a las personas interesadas en cumplimentar sus voluntades anticipadas**" y, al mismo tiempo, **adecuará los recursos administrativos a la evolución de la cada vez mayor demanda de un modo ágil**. En el corto plazo de la aprobación de este decreto, se prevé **aumentar las consultas dedicadas a este fin en un 33%.**

## EL PAPEL DE LOS CENTROS DE SALUD

Con el ánimo de facilitar la realización del documento de voluntades anticipadas, el Consejero de Salud ha anunciado también hoy que se está extendiendo en Osakidetza la posibilidad de que los ciudadanos y ciudadanas vascas que lo deseen redacten el documento con la **asesoría de su propio médico de familia y lo otorgen posteriormente en el propio centro de salud** a través de la fórmula de los tres testigos, actuando como tales otros profesionales del centro de salud. Según ha explicado Jon Darpón, esta iniciativa se empezó a pilotar en el **Territorio de Araba**, habiéndose completado su extensión a todos sus centros de salud y dados los buenos resultados, desde el año pasado se está extendiendo a los centros de salud de **Bizkaia y Gipuzkoa**.

Esta dinámica de facilitación del otorgamiento de voluntades anticipadas, tiene la gran virtud de poder ser dirigida y ofertada por los propios facultativos a sus pacientes de más edad y con patologías crónicas, donde el proceso de comunicación y planificación compartida de los cuidados y terapias que se irán precisando con el avance de la edad y de la enfermedad cobran todo su sentido, al permitir a las personas ser protagonistas e indicar sus preferencias para cuando llegue el proceso de final de la vida.

Además, **esta actualización modifica también el régimen para acceder a los documentos, de forma que el derecho de acceso, que hasta ahora únicamente se reconocía al personal sanitario y a los propios otorgantes,** se extenderá a las y los representantes designados por los mismos.

## EUSKADI, A LA CABEZA EN EL NÚMERO DE REGISTROS

La cifra de documentos de voluntades anticipadas registradas en Euskadi se sitúa en 21.723, que supone **una tasa de 9,9 otorgantes por cada 1000 habitantes**, la mayor de todas las CCAA del Estado.

Con la descentralización y agilización del registro de documentos y la facilitación de su realización desde los propios centros de salud, se espera un crecimiento exponencial de los mismos. Fomentar esta práctica supone mejorar la calidad asistencial, el empoderamiento de los y las pacientes, aumentar la seguridad ética y jurídica de los profesionales al mismo tiempo que se respetan la autonomía y las preferencias de las personas en el final de la vida.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA DESTINARÁ 670.000 EUROS A SUBVENCIONAR LA COMPRA DE FONDOS POR PARTE DE LAS BIBLIOTECAS VASCAS

- **Una parte de las ayudas irá destinada a la compra de lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 670.000 euros dirigida a subvencionar la compra de fondos para las bibliotecas integradas en la Red de Lectura Pública de Euskadi en el año 2018. Estas ayudas podrán ir dirigidas a adquisición de lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación o a la compra de títulos para renovar el fondo de las bibliotecas ya existentes.

El objetivo de estas subvenciones, que mantienen la cuantía del año pasado, es cumplir con lo establecido en la Ley 11/2007, de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi. Según esta normativa, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco debe establecer anualmente en sus presupuestos programas de ayudas para la dotación de fondos, ya que es competencia de este Departamento gestionar el Servicio de Bibliotecas, así como desarrollar y acometer las funciones que correspondan al Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi.

Estas subvenciones contemplan dos modalidades:
- Ayudas para la compra de lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación. A este tipo de ayudas se destinarán 50.000 euros.
- Ayudas destinadas a la renovación del fondo de las bibliotecas ya existentes. Esta partida contará con una dotación de 620.000 euros.

A través de esta línea de subvenciones, el Gobierno Vasco hace suya, conjuntamente con los titulares de las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi, la responsabilidad de dotar de fondos a dichas bibliotecas, para que puedan atender convenientemente las necesidades de las personas usuarias.

La Red de Lectura Pública de Euskadi cuenta con más de seis millones de ejemplares en fondos, alrededor de 1.100.000 títulos diferentes y cerca de 980.000 socios/as. Entre otras ventajas, las personas socias de esta Red tienen acceso a eLiburutegia, la mayor biblioteca digital del Estado.

El pasado año se presentaron tres solicitudes para la compra de libros destinados a bibliotecas de nueva creación, y se concedieron dos. Para la renovación de fondos de bibliotecas ya existentes, se presentaron 180 solicitudes y todas fueron concedidas. A través de estas subvenciones se han renovado sus catálogos bibliográficos, incorporándose a la Red de Lectura Pública de Euskadi 261.703 ejemplares nuevos en el 2017.

**Cultura y Política Lingüística**

**EL GOBIERNO VASCO DESTINA 700.000 EUROS A APOYAR LA ACTIVIDAD DE MUSEOS, EXPOSICIONES Y COLECCIONES PRIVADAS**

- **A través de estas subvenciones se apoyarán económicamente actualizaciones de exposiciones, muestras temporales o actividades didácticas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión una partida de 700.000 euros destinada a apoyar económicamente la labor de museos y colecciones privadas. A través de este presupuesto se podrán subvencionar actualizaciones de exposiciones, muestras temporales, trabajos de investigación sobre el patrimonio, actividades didácticas o mejoras de páginas web, entre otras actividades.

Estas ayudas pretenden enriquecer e impulsar la actividad museística en Euskadi y constituyen una de las principales vías con las que cuenta el Departamento de Cultura y Política Lingüística para apoyar el Centro de Museos de Euskadi, que incluye el conjunto de museos de nuestra comunidad. Las actividades subvencionables son las siguientes:

- Documentar la colección utilizando, con carácter general, el sistema de información EMSIME
- Actualización de la exposición permanente
- Exposiciones temporales.
- Actividades didácticas y lúdico-culturales acordes con la temática y ámbito de actuación del museo
- Trabajos de investigación sobre el patrimonio que compone sus colecciones, dirigidos a incorporar los resultados a exposiciones, actividades didácticas y de difusión cultural.
- Edición y traducción de contenidos científicos y divulgativos sobre las colecciones, en forma de catálogos, monografías, publicaciones periódicas, audiovisuales y multimedia para su publicación al menos en formato digital.
- Elaboración de documentos y estudios para la mejora y la innovación en la gestión: Planes estratégicos, planes directores, cartas de servicios, estudios de viabilidad, estudios de público, planes de comunicación y marketing cultural, diagnósticos y planificación de medidas en favor de la igualdad de mujeres y hombres en la gestión interna y la programación de actividades.
- Creación y mejoras técnicas en la página web del museo.

El año pasado se concedieron 39 subvenciones para proyectos o iniciativas promovidos por un total de 23 museos, ayuntamientos, centros culturales o asociaciones. La mayor de las ayudas, de 33.742 euros, fue a parar al Aquarium de Donostia con el fin de apoyar trabajos de catalogación de colecciones y su publicación en catálogo on-line.